

KONTROL MOZIOA

Logeletan bizi diren familien inguruan

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko azaroaren 17an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urriaren 29an etxe-kaleratzea eman zen Egia auzoko Aldapa kaleko etxe batean. Etxebizitza honetatik 11 pertsona kaleratu zituen Ertzaintzak, 11 urteko mutikoa eta haurdun dagoen emakume bat tarteko. Beste “kaleratze isil” andanaren artean atentzioa bereganatu duen kaleratze honek hirian dugun etxebizitza larrialdiaren aurpegi latza eta uste baino zabalduagoa bistan utzi du: hirian hamarnaka familia bizi dira logela batean, etxea partekatuz. Honakoa prekaritatearen aurpegi gero eta zabalduagoa dela ez dago zalantzarik, eta hirian hamarnaka (edo ehunka) familiaren egoeraren hauskortasuna bistakoa da. Gainera, askorentzat behin-behineko egoera gisa hasten dena, kronifikatu egiten da denboran asko luzatuz eta, beraz, kalte negatiboak biderkatuz.

Estatuko lurralde batzuetako datuen arabera, azken hamarkadan bikoiztu egin da etxea partekatzen duten familia unitateen kopurua. Gure hirian ere adierazle guztiek joera hauxe dela pentsatzera garamatzate. Zein da, baina, Donostian errealitate honen dimentsio erreala? Zenbat dira egoera honetan dauden familiak? Zenbat langile donostiarrentzat haien soldata ez da nahikoa etxebizitza duin bat ordaintzeko? Zenbat adin-txikiko donostiarrek igaro behar dituzte hain garrantzitsuak diren haurtzaroko urteak intimitaterako, aisialdirako eta lasai egoteko tokirik gabe? Cáritasek berriki argitaratutako informe baten arabera, logela batean etxebizitza-bazterkerian bizitzeak osasun fisikoa, mentala eta emozionala kaltetzen du; are, egoera honetan bizi diren familiek inpaktu

negatiboa izaten dute heziketan, baita haur eta nerabeen garapenean ere, bizitza duinarekin bateraezinak diren espazioetan haztearen ondorioz. Zenbat dira, bada, Donostian errealitate hau bizi duten haur eta nerabeak?

Hori horrela, eta hiriko errealitate latz bezain hedatua dela jakinik, Udalak behar luke izan errealitate honen argazkia, ondoren, egoera honetan dauden donostiarrei ahalik eta bide-laguntza onena emateko, hiriko etxebizitza, harrera, enplegu, parte-hartze, haurtzaro eta gizarte politikak ahalik eta ondoen egokituz. Argi utzi nahi dugu: esfortzuak ez dira jarri behar egoera hau jazartzen eta zigortzen, kontziente baikara pertsona eta familia askorentzat kalean ez egoteko edota Donostian gelditzeko aukera bakarra etxebizitza modu honetan eskuratzea dela; aitzitik, herritar hauek etxebizitza-prekarietate egoera honetatik egoera duinagoetara igarotzeko baliabide eta akonpainamendu konkretuak diseinatzen jarri behar genuke atentzioa; modu berean, bizitegi-bazterkeria honetan bizi diren adin-txikikoen haurtzaroa eta nerabezaroa ahalik eta atsegina izateko tamainako baliabideak sortzeko ere balio behar luke ariketa honek.

Jakin badakigu familia osoak logeletan bizitzea errealitate zabaldua den modu berean, neurri handian *murgildutako ekonomian* kokatu daitekeen jarduera dela honakoa; izan ere, kasu askotan ez da egoten alokairu kontraturik edota erroldarik. Dena den, Donostiako Udalak baditu baliabideak (errolda, gizarte zerbitzu eta bestelako zerbitzuen bidez) errealitate honi neurria hartu eta argazkia ateratzeko. Hirian, erroldari eta beste baliabide batzuei esker, biztanleriaren argazkia aztertzeke adierazle eta neurgailu desberdinak sortzen joan dira: biztanleria auzoka, jatorriaren arabera, adina eta generoaren arabera aztertu dezakegu. Zergatik ez aztertu donostiarrak nola bizi diren haien etxebizitzetan? Adierazle xeheagoak, aipagai dugun bizitegi-egoerarena kasu, lagungarri izan daitezke hiriak duen enplegu, harrera edo bizitegi gaitasuna neurtzeko eta, lehenago esan bezala, egoeraren neurriko esku-hartzeak diseinatzeke.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bizitegi-egoeraren argazkia osatu dezala, logelatan bizi diren familien kopurua jakiteko.

- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aipatu argazkia baliatu dezala logelatan bizi diren familia eta adin-txikikoen bizitza-kalitatea hobetzen lagundu dezaketen neurriak diseinatzeko.

Donostian, 2025eko azaroaren 21a

Izar Hernando Ibero

EH Bildu udal taldeko zinegotzia